

#DSS2016 paisaia beltza

**Xabier Mikel
Errekondo**

Agintari zenbaitek ez du gustuko egungo paisaia. Ez du gustuko Zubietan mendia, Belartzako sarrera eta Gipuzkoa plazak osatzen duten hirukia. Nola liteke Belartzan bi hila-betez hondeamakina erraldoiak egurrean aritu izana agintarien, udaleko teknikarien eta udaltzainen begi aurrean eta azkenean eragile sozialen salaketen oihartzunak behartu izana txikizioa etetera eta Donostiako Udala lanen esleipenerako konkurtsoko oinarriak publikatzera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean!

Diruaren hotsak ditu nonbait ezkutarazten lotsak... eta azaleratu harropuzkeria galantak. Politikari berak, sabel mingostuta antza, tematuta darraite erraustegiarekin: «Zubietan eraiki egingo dugu, kosta

ahala kosta». Ze axola dio herritarren, medikuen edo @tGuraSOS-en osasunaren aldeko aldarriak. Harrokeriaz dira agertzen egia bakarraren jabe, gainontzekoak beste muturreko hegian kokatuz ezker abertzalearen deabrupean... Martxa honetan Torquemada ere gaindituko dute hauek, alajaina! Legegintzaldi beltza daramate Donostiako Udaleko eta Aldundiko gobernanteek... «a hechos consumados», turboa sartuta eta ezkutuan, herritarrei ahotsa ukatuta. Eta galdetzen diot ene buruari ekainaren 5eko erabakitze eskubidearen aldarria babestea lotsarik eza muturrera eramatea ez ote den? Bada, txin-txin politikariak lotsagarri ditu uzten (oraindik lotsaren arrastorik badute) Kattalin Mine-rrek ekainaren 3ko «Berria»-n argitaratu

“Politikariak zaborrontzietan” artikuluan. Olano eta Goiari ez omen zaie protestarik gustatzen #DSS2016 kapitalean eta horien irudiko herritarrek ezin dutela nahi dutena egin guztiona den espazio publikoan. Ondorioz, #erraustegia eraiki nahi duten politikari biek beren buruei errepikatu beharko lizkieketela baieztapen horiek.

Politikariok edozer egiteko boteretsu dira sentitzen, ordea, eta guztionak diren paisaia publikoetan, erraustegia di-da batean nahi dute eraiki, Belartza sudur aurrean suntsitzen utzi diruaren hotsaren ordaintzaileari eta Gipuzkoa plaza herritarren protesta koloretsu eta animosoaren orde z porra eta eskopetadun beltzez betetako kaleen paisaia: @pnv_style, #Bizitza-DaHandiena, @tGuraSOS. •

Buelta ematea

**Maidier Iantzi
Goienetxe**

Komedia baino errazagoa omen da drama. Irri eginaraztea baino, negar eginaraztea. Lehenago kutsatzen omen da negarra irria baino. Baina badaude pozaren pozez ateratzen diren malkoak ere. Badago irri algaraka negarrez hastera.

Ilusioa baino errazagoa omen da desilusioa. Gauzak aldatzeko eta hobetzeko itxaropena izatea baino, dena dagoen bezala geldituko dela pentsatzea. Betiko. Ez da erraza jendea ilusionatuko duen zerbait sortzea, barrenean zerbait ukituko eta mugituko diguna, esperantzaz segituko duguna. Baina, batzuetan, abesti bat aski izaten da sabelean zerbaitek buelta emateko:

«Har dezagun bidea, gure esku dago-ta...». Sentimendu aunitz dantzan jartzen dituen doinua da. Norbere bizipenekin lotutakoak, baina konpartituak ere bai. Elkarrekin zerbait hagitz ona egin dezakegun esperantza, eta egiten duguna gure esku dagoela jakiteak ematen duen indarra.

Joan den igandean poza sentitu nuen sa-beletik goiti plaza erdian dantzatzeko emakume erretiratuari begira (berak erranda dakit jubilatuta dagoela, «jubila-zio on bat zor digute!» aldarrikatu baitzuen). Jende z inguratuta zegoen, baina inor begira ez balu bezala zebilen, libre, bere kasa. Eta bere kasa mugitzen zitzaizkion oinak, besoak, burua... gorputz atal

guztiak. Zoriontsu ikusi nuen, gauza handiren beharrik gabe.

Pozeko malkoak berriz ere adin guztietako jendea hauteskontzietara dantzan, besta giroan, hurbiltzean, mahaian nortasun agiriak begiratzen ari ziren gazteak hain gustura sumatzean (nork nahi izaten du normalean hauteskundeetan mahaian egon?), eta, zer erranik ez, 90 urte baino gehiagoko jendea etorkizunari buruz itxaropenez solasean aditzean. Irria ere kutsakor da, ez dago zalantzarik.

Sasoia da, belar moztu berriaren usaina bazter guztietara zabaltzen ari da. Goazen bada gu ere baserritarrak bezala arrastelua edo eskuarea hartu eta buelta ematera. •